

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2021 Foru Dekretua, martxoaren 2koa. Kultura eta Kirol Sailak lehia araubidean dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarri orokorren aldaketa onestea

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen zituen dirulaguntzen oinarri orokorrak.

Aipatutako araudiak, bai izenburuan bai 1. artikuluan, jasotzen zuen oinarriak soilik aplikatuko zitzaizkiela norgehiagoka bidez emandako dirulaguntzei, baita artikulua horretan berariaz zerrendatutako dirulaguntza lerroei ere.

COVID-19 koronabirusak mundu osoan sortu duen pandemiak eragin negatiboa izan du gure gizartean, eta ondorio oso larriak ekarri ditu kulturaren sektorean eta kirolean, besteak beste, egoera horren aurrean mehatxu gogorak jasan baitituzte. Horregatik, ezinbestekotzat jo da jarduera ildoak ezartzea sektore horiek suspertzen laguntzeko, ez baitaude sartuta azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan araututako zerrenda zehatzean.

Ahalik eta onuradun gehienek laguntzak eskuratu ahal izan ditzaten, eta testuinguru sozioekonomiko berriak eragindako premiei azkar erantzun ahal izateko, nahitaezkoa da lehen aipatutako araudia aldatzea.

Aldaketa hori Urteko Araugintza Planean sartu zen, baina beharrezkoa da proiektu hau onestea, aipatutako erronkei erantzuteko beharregatik.

Agindu hau izapidetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, jasotako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak.

Hala, azaldutako aurrekarietan, nahikoa arrazoitu da arautu beharra dagoela eta, gainera, jarduera arauemaile proportzionatua da, ezinbesteko gutxienekora mugatzen baita lortu nahi den helburua lortzeko eta kanpainaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzeko. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, printzipio hori ez da urratu; izan ere, aldez aurreko kontsulta publikoaren eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideetatik salbuetsita geratzen da dirulaguntzen programen oinarriak eta deialdiak onartzea, baldin eta horien edukiak ez badu funtsean aldatzen helburu berberarekin aurretik onartutako oinarrien eta deialdien edukia.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren izenburua, onetsi zituena Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak. Honela geratzen da:

“Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokorrak”

Bigarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 1. artikulua, onetsi zituena Kultura eta Kirol Sailak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak. Honela geratzen da:

“1. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez (norgehiagoka edo lehia libre) emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen oinarri orokorrak ezartzen ditu dekretu honek. Dirulaguntzok aurrekontu kredituen kontura ordainduko dira eta sailaren eskumen esparruko jarduerak izango dituzte xede.

2. Honako dirulaguntza lerroei aplikatuko zaizkie:

- Museo elkarteentzako dirulaguntzak.
- Musika hezkuntza udalerrietan.
- Udalen kultura ekimenak.
- Elkarteen kultura ekimenak.
- Ondasun historiko eta artistikoak kontserbatu eta zaharberritzea.
- Babes berezi, ertain eta oinarrizkoko eraikinak kontserbatu eta zaharberritzea.
- Baselizak kontserbatu eta zaharberritzea.
- Elementu txikiak kontserbatu eta zaharberritzea.
- Kirola toki erakundeetan.
- Eskola kirola.
- Atsedeneko kirola: irabazteko asmorik gabeko entitateak.
- Klubentzako laguntzak.
- Ezinduen elkarretarako laguntza.
- San Prudentzio jaietako jardueretarako laguntza.
- Laguntzak kirol federazioei.
- Laguntzak emakumeen kirolari.
- Laguntzak kirol federazioei eta klubei: hizkuntza normalizazio planak.
- Dirulaguntzak Arabako kirol federaziori material ez-suntsikorra erosteko.
- Laguntzak Arabako kirol federazioei gazte eta kadeteen joan-etorrietarako.
- Laguntzak arte eszeniko eta musikaletarako prestakuntzarako eta arte sorkuntzarako.
- Diruz lagun daitezkeen beste edozein lerro, Kultura eta Kirol Sailari emandako eginkizunekin loturiko programa edo jardueri buruzkoak, oinarri arautzaile berezirik eskatzen ez dutenak.

3. Ez dira aplikatuko:

a) Kultura eta Kirol Sailak emandako sariei.

b) Arau berezien oinarri arautzaileen ebazpenek jasotako dirulaguntzei, norgehiagoka bidez ematekoak.

4. Deialdian honako hauek zehaztu behar dira:

a. Oinarri arautzaileak zein xedapenek ezarri dituen eta xedapen hori zein ALHAOn argitaratu den, salbu eta oinarriak, bereziak izanik, deialdian bertan jasotzen badira.

b. Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta eskura diren kredituen barruan zer zenbateko egiten duten guztira kreditu baliagarrien barruan emango diren dirulaguntzek.

c. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango direla adierazi behar da.

e. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeke modua.

f. Zer organok duten prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena.

g. Eskaerak aurkezteko epea.

h. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i. Eskaerari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.

j. Behar den kasuetan, eskaerak zuzentzeko aukera dagoela, Dirulaguntzen Lege Orokorren 27. artikuluan xedatzen denaren arabera eta 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 25. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

k. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen ote duen, eta, horrela ez bada, zein organori aurkeztu behar zaion gora jotzeko errekurtsoa.

l. Eskaerak baloratzeko irizpideak. Objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta diskriminaziorik eza bermatu beharko dute irizpide horiek dirulaguntzak ematerakoan, eta egokia ote den dirulaguntzaren xede den helburua lortzeko jarduera izango da kontuan irizpideok haztatzerakoan, hauexek kontuan hartuta: aurkeztutako proiektuaren edo egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak edo, oro har, dirulaguntzaren helburua lortzeko egoki irizten den eta deialdian jasotzen den edozein alderdi. Horrez gain, Emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan arabera, hala dagokionean, esleipen irizpideen artean sartuko da diruz lagundutako proiektuan edo jardueran genero ikuspegia txertatzea, bai eta erakunde eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jardueren garapenean izandako ibilbidea ere.

m. Nola jakinarazi edo argitaratuko den deialdia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. artikuluan ezartzen duenaren arabera.”

Hirugarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2021eko martxoaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

MARIA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ